

6/2020 AKTA
NAFARROAKO UDALERRIEN ETA KONTZEJUEN FEDERAZIOAREN BATZORDE BETEARAZLEAK
ABUZTUAREN 12an EGINDAKO BILKURA BEREZIA

BERTARATUAK:

LEHENDAKARIA:

Juan Carlos Castillo Ezpeleta jn., Azkoiengo alkatea

1. LEHENDAKARIORDEA:

Mario Fabo Calero jn., Martzillako alkatea

2. LEHENDAKARIORDEA:

Ander Oroz Casimiro jn., Antsoaingo alkatea

BATZORDEKIDEAK:

Aitor Larraza Carrera jn., Irurtzungo alkatea

Oihan Mendo Goñi jn., Garesko alkatea

Jesús Esparza Iriarte jn., Kasedako alkatea

M^a Carmen Segura Moreno and., Alesbesko alkatea

Jesús María Arrizubieta Astiz jn., Tafallako alkatea

Raúl Maiza González jn., Berriozarko alkatea

Óscar Bea Trincado jn., Cintruenigoko alkatea

David Alvarez Yanguas jn., Castejongo alkatea.

Enrique Maya Miranda jn., Iruñeko alkatea.

Alejandro Toquero Gil jn., Tuterako alkatea.

Pedro José Soto Eguren jn., Gesalazko alkatea.

Manuel Romero Pardo jn., Aranguren Ibarreko alkatea

Cristina Recalde Vallejo and., Artikako Kontzejuko burua

Sabina García Olmeda and., Izarbeibarko

Mankomunitateko lehendakaria

Fernando Ferrer Molina jn., Erriberako Mankomunitateko
lehendakaria

Esther Lacasta Pérez-Illzarbe and., Basaburuako alkatea

Mikel Zabaleta Aramendía jn., Leitzako alkatea

Itziar Semberoz Garralda and., Espartza Zaraitzuko alkatea

Ángel Martín Unzue Ayanz jn., Agoizko Alkatea

Yolanda González García and., Vianako alkatea.

David Oroz Alonso jn., Urdiaingo alkatea

IDAZKARIA:

Berta Enrique Cornago and.

Bi mila eta hogeiko abuztuaren hamabian, goizeko hamabietan, aldamenean adierazitakoak bildu dira era telematikoan Zoom aplikazioaren bidez, Batzorde Betearazleko kideak baitira. Bilkuraren buru Juan Carlos Castillo Ezpeleta jn. aritu da, eta idazkari, berriz, Berta Enrique Cornago and. Hona hemen

GAI-ZERRENDA

1^o.- Udalek mugikortasun jasangarria, Hiri Agenda, zaintza-politikak eta kultura babesteko politikak gara ditzaten Espainiako Gobernuak eta FEMPeK onetsitako akordioa ezagutzea eta baloratzea.

1. PUNTUA. Udalek mugikortasun jasangarria, Hiri Agenda, zaintza-politikak eta kultura babesteko politikak gara ditzaten Espainiako Gobernuak eta FEMPeK onetsitako akordioa ezagutzea eta baloratzea.

Batzorde betearazlearen saioa berriro hasi eta lehendakariak azaldu du Fabo jaunak, Martzillako alkateak, eta Oroz jaunak, Antsoingo alkateak, aurkeztutako ekarpenak posta elektronikoz igorri direla. Halaber, ekarpen guztiak kontuan hartu ondoren egindako ebazpen-proposamena igorri da. Proposamen hori Batzorde Betearazlearen iritzira jarri eta ozen irakurri dute.

Fabo jaunak, Martzillako alkateak, azaldu du bere ekarpenak hasierako proposamenari bigarren puntu bat gehitzen diola gainontzekoa mantenduta. Irakurritako erabakiaren proposamenaren inguruan esan du ados egongo litzatekeela idatzian Aurrekontuen Egonkortasunari buruzko Legearen “indargabetzea” adierazi beharrean, “malgutzea” adieraziko balitz.

Oroz jaunak, Antsoingo alkateak, adierazi du ez zaiola egokia iruditzen malgutzeaz aritzea aurkeztutako proposamenak aferaren inguruan NUKFk izandako jarrera eta ibilbidea biltzen duelako.

Alvarez jaunak, Castejongo alkateak, uste du ahalegina egin dutela adostasun batera iristeko, proposamenak NUKFk aurretik onetsitakoa jasotzen duela eta proposamenari aldeko botoa emanen diola aurkeztu den moduan erredaktatua. Ez dago ados Fabo jaunak adierazitako aldaketarekin uste baitu indargabetzea dela lortu nahi dena.

Fabo jaunak, Martzillako alkateak, esan du garrantzitsuena FEMP eta Ogasunaren arteko akordioa errefusatzeko dela eta proposamenaren lau puntuak bereizita bozkatzea proposatu du.

Lehendakariak zehaztu du proposamena, berez, lau puntuak osatzen dutela.

Segura andreak, Alesbesko alkateak, adierazi du bozketa bereizita egitea onartzen ez badute, berriz ere behartuak daudela Aurrekontuen Egonkortasunari buruzko Legearen inguruko iritzia ematera.

Oroz jaunak, Antsoingo alkateak, esan du lege-eragozpenik ez badago bera ados dagoela puntuak bereizita bozkatzearekin.

Maya jaunak, Iruñeko alkateak, zehaztu du Iruñeko Udalean lau puntuko adierazpen bat aurkeztu zela eta puntuak bereizita bozkatu zituztela.

González andreak, Vianako alkateak, esan du arazorik ez duela ikusten eta berari hobe iruditzen zaiola bereizita bozkatzea.

Toquero jaunak, Tuterako alkateak, adierazi du bereizita bozkatzen bada, adostasuna islatzen duen puntu bat dagoela.

Romero jaunak, Aranguren Ibarreko alkateak, ez du arazorik ikusten bereizita bozkatzeko baina argiak izan beharra adierazi du eta arazoak lege batek sortzen dituela. Horregatik, ez du ulertzen zergatik dagoen hainbeste mesfidantza legearen indargabetzea eskatzeko.

Alvarez jaunak, Castejongo alkateak, esan du gehiengoaren iritzia beteko duela baina bere ustez proposamena bere osotasunean, batera, bozkatu beharko litzatekeela puntu nagusia Aurrekontuen Egonkortasunari buruzko Legea delako.

Esandakoak ikusita, lehendakariak onartu du proposamena puntuka bereizita bozkatzea.

Puntuak bozkatu ondoren, honakoa izan da emaitza: lehenengo puntua gehiengoz onetsi da Gonzalez andrearen kontrako boto bakarrarekin; bigarrena aldeko hamazazpi botorekin onetsi da eta honako entitateek kontrako botoa eman diote: Iruñeko, Tuterako, Casedako, Martzillako eta Alesbesko udalek, Erriberako Mankomunitateak eta Artikako Kontzejuak.

Hirugarren eta laugarren puntuak aho batez onetsi dira.

ERABAKI DA:

Honako erabaki bateratu hau onestea:

“NUKFK erabat errefusatzeko du FEMPEk eta Espainiako Gobernuak hartutako akordioa NUKFren gobernu organoek onetsitakoa betetzen ez duelako. Hots, Nafarroako toki entitateek ezin dituztelako euren gerakinak erabili ekonomia eta gizartea suspertzeko egungo aurrekontuaren egonkortasunari buruzko legeriak ezartzen dituen mugak malgutuz ez direlako.

Akordioak soilik 2020ra luzatzen ditu superabita erabiltzeko eta aurrekontu-orekaren arabera gerakina erabiltzeko arau bereziak. Bestalde, gerakinaren %35 gastatu ahal izateko gerakin osoa estatuko ogasunari eman behar zaiola jasotzen du eta azkenik, gastu-araua salbuesten du baina soilik 2020ko ekitaldirako.

Era berean, akordioak FEMPEk aho batez erabakitakoaren kontra egiten du. FEMPEk aurretik hartutako akordioak altxortegiko gerakinak baldintzarik gabe erabiltzea eskatzen zuen bai eta Estatuko Aurrekontu Orokorretan toki entitateentzako zenbait funts ezartzea (5.000 milioi euroko funts bat toki entitateek ekonomia eta gizartea suspertu ahal izateko, beste bat garraiorako eta hirugarren bat bizitzeko gutxieneko diru-sarrera kudeatzerakoan sortutako gastuak estaltzeko). Funts horiek ez zeuden gerakinak entregatzeko baldintzapean.

Horregatik guztiagatik honakoa erabaki da:

1. *FEMPEk eta Espainiako Gobernuak hartutako akordioa errefusatzeko.*

2. *Espainiako Gobernuari eskatzea Aurrekontuen Egonkortasunari buruzko Legea indargabetu dezan, NUKFren Batzar Nagusiak eta Batzorde Betearazleak aurrez onetsitako baldintzetan.*
3. *Nafarroako Gobernuari exijitzea behar beste ekintza abia ditzan toki entitateek haien altxortegiko gerakinak erabiltzeko gaitasuna defendatzeko, haien autonomia zainduz Nafarroaren eta bere foru-araubidearen esparruan.*
4. *FEMPeko lehendakariari, Espainiako Gobernuari eta Nafarroako Gobernuko lehendakariari bai eta Diputatuen Kongresuan Nafarroako Parlamentuko ordezkariak duten alderdi politikoei honako erabaki honen berri ematea.”*

Eta aztergai gehiagorik ez dagoela, lehendakari jaunak bilkura amaitutzat eman du, goiburuan aipatzen den eguneko eguerdiko 13:00ak direnean. Idazkari naizen honek honako akta idatzi eta horren fede ematen dut, eta presidentearekin sinatu dut.

LEHENDAKARIAREN ONIRITZIA,

IDAZKARIA,

Juan Carlos Castillo Ezpeleta jn.

Berta Enrique Cornago and.